

Amaitu gabeko frontearen iragankortasuna

Eusko Gudarostearen aldetik gotorlekuen eraikuntzak 1937ko martxoan jo zuen bere une gorena. Ustezko ofentsiba aurreikusita, agintari errepublikanoek txosten batzuk egitea agindu zuten lanen egoera ezagutu ahal izateko.

Egitura hauek guztiak eta gotortzeko esfortzua alferrikakoak izan ziren etsaiek aurrera eraman zuten ofentsiba handiaren aurka. 1937ko martxoaren 31n Mola generalak berak burutu zuen artileria eta abiazioa – Kondor legio aleman beldurgarria- Nafarroako Brigadekin erasoaldi bateratua Arabako fronteko posizio errepublikanoen aurka. Historialari batzuek esaten dute hura izan zela historia militarrean lehen aire-lurra erasoaldi bateratua, Bigarren Mundu Gerraren aurrekaria.

Ondorioz, apirilaren lehen asteetan, Eusko Gudarostearen milaka soldaduk lehen atzeraegite handia egin zuten bakarrik egun batzuetako eraginkortasuna izan zuten egitura defentsiboak atzean utzita. Iragankortasunaren benetako gauzatzea.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN
IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)